



Arartekoaren ebazpena, 2011ko abuztuaren 12koa. Horren bidez, Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuen Sailari gomendatzen zaio eraginik gabe utz ditzala etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriaren etetea eta forma akats larriengatik behar ez bezala eskuratutako kopuruak itzuli beharragatik sortutako zorra.

Aurrekariak

1. Kexagileak Etxebizitzako gastuetarako Prestazio Osagarri bat (EPO) jasotzen du. Prestazio hori 2010eko azaroaren 23ko ebazpenaren bidez eten zitzaion, eskatu zitzaionean alokairu ordainagiriak ez aurkezteagatik. Etetea atzera eraman zen urtarrilaren 1era, eta ondorioz behar ez zirela kobratutako zenbatekoengatik 2.000 euroko zorra sortu zen.
2. Kexagilearen kexaren arrazoia da Arabako Foru Aldundiak ez ziola jakinarazi alokairu ordainagiriak San Antonio kaleko 10.eko Gizarte Prestazioei buruzko Informazio eta Izapidetze Udal Bulegoan aurkeztu behar zirela. Prestazioaren emate-ebazpena jakinarazteko idazkian adierazitako jarraibideei jarraituz (eta Etxebizitzako gastuetarako Prestazio Osagarriaren 2/2010 Dekretuko 19.1 artikulua xedatzen duenaren arabera), bere oinarrizko gizarte zerbitzura jo zuen aipatu agiriak ematera. Bertan, jakinarazi zitzaion izapidetzeko moduaren aldaketa bat zela-eta, ordainagiri horiek beste leku batean eman behar zirela eta garaiz jakinaraziko zitzaiola. Jakinarazpen horren ordez, azaroaren 23ko ebazpen idazkia jaso zuen; haren bidez prestazioa eten zitzaiola eta 2.000 euroko zorra sortu zela jakinarazi zitzaion. Gerora, abenduaren 13an, San Antonio kaleko udal bulegoan eman zituen urteari zegozkion ordainagiriak -haiek onartuak izan ziren-, baita alegazio idazki bat ere.
3. Horri buruzko argibideak eskatu ondoren, Arabako Foru Aldundiak jakinarazi zigun honako hau adierazi zela prestazio emateko ebazpenean: *"...Esta concesión conlleva el cumplimiento de las obligaciones recogidas en el art. 7 del Decreto 2/2010 de 12 de enero de 2010, así como la obligatoriedad de figurar inscrita en el servicio de Etxebide del Departamento de Vivienda, Obras públicas y Transportes, salvo circunstancias excepcionales determinadas en el citado reglamento ... (...). Asimismo, se le comunica la obligación, de presentar semestralmente los justificantes de los gastos de alquiler de la vivienda o alojamiento habitual, ante la Oficina de Información y Tramitación de Prestaciones Sociales sita en la calle San Antonio, 10"*. Beste batzuen artean, alderdi hori argitzeko asmoz bigarren informazio eskaera egin ondoren, hauxe erantzun zigun: *"...se ha centralizado lo relativo a prestaciones económicas en la Oficina sita en San Antonio 10, y es allí donde se entrega toda la*



documentación relativa a las prestaciones de la ley 18/2008, y así se informó desde los Servicios Sociales de Base a todos los usuarios, así como a partir de la apertura de este servicio, aparece en la resolución de concesión de esta prestación".

4. Bestalde, Etxebizitzako gastuetarako Prestazio Osagarriaren 2/2010 Dekretuko IV. kapituluko xedapenak betez, behar ez zirela jasotakoak kobratzeko espediente berririk zabaldu zen galdetuta, Aldundiak honakoa esan digu: *"tal como refrenda la normativa (...) la Diputación Foral de Álava dicta la correspondiente resolución de suspensión motivada. En la misma se notifica la deuda generada y la forma de compensación de la misma tal y como viene establecido en el artículo 3.c (sic) del citado Decreto"*.

Gogoetak

1. Kexagileak emandako agirien arabera, EPOaren emate-ebazpenean zehazten da ordainagiriak oinarrizko gizarte zerbitzuan eman beharko direla. Horrela egiten zen lehenago GLL batengatik ordaintzen zizkioten alokairu gastuak justifikatzeko, 2/2010 Dekretua indarrean sartu aurretik. Ordainagiriak eman behar hori Dekretuko 19.1 artikulua xedatzen du: *"Emate-ebazpenari dagokionez, Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarriaren titularrak sei hilean behin ohiko etxebizitzaren edo bizitokiaren alokairu-gastuen frogagiriak udalerriko oinarrizko gizarte-zerbitzuari aurkeztu beharra ezarriko da. Frogagiri horiek ordainagiri pribatuak, fakturak, edo banku-ordainketako frogagiriak izan daitezke"*.

Alokairuen ordainagiriak San Antonio kaleko bulegoan eman behar zirela ez zen behar bezala jakinarazi eta, hala ere, Arabako Foru Aldundiak erabaki du kexagileak eteteko arrazoi bat bete duela (Dekretuko 24.1.a artikulua), ordainagiriak bai EPO emateko ebazpenean bai araudian bertan ezarritako xedapenen arabera aurkeztu arren. Hots, ordainagiriak oinarrizko gizarte zerbitzuan behar bezala aurkeztu arren, haiek ez ziren onartu esan baitzitzaion beste leku batean eman beharko zirela, eta leku hura garaiz kanpo jakinarazi zitzaion, eteteko prozedura amaitu ondoren, zegozkion alegazioak aurkezteko aukerarik egon gabe.

2. Hain zuzen ere, entzuteko izapiderik ere ez zen bete, eta haren bidez kexagileak alokairuen ordainagiriak aurkeztu ahal zituzkeen, horrela etetea saihestuz.

Aldundiari inguruabar horretaz galdetuta, honakoa esan digu alegazioetarako epea zabaldu beharri buruz: *"...la suspensión motivada por la causa anteriormente señalada no tiene regulado un trámite de audiencia, sino más bien el propio recurso de alzada que procede tras la resolución definitiva"*.

Zentzu horretan, ez gatoz bat Arabako Foru Aldundiak entzuteko izapidera deitzeko beharrik ezari buruz dioenarekin, EPO arautzen duen legeak berak horrela xedatzen duelako. Zehazki, 2/2010 Dekretuko 31.2 artikuluan: *“Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria jasotzeko eskubidea aldatzeko, eteteko edo azkentzeko prozedura hasitakoan, ofiziozko prozedura bat bada, hasiera eman zaiola jakinaraziko zaio titularrari adieraziriko bizilekura igorrita, eta baita ere prozedurak oinarri dituen arrazoiak eta izan ditzakeen ondorio ekonomikoak -33. artikuluan ezarritako epean berariazko ebazpenari ezak eragindakoak-, eta ebatzi eta jakinarazteko epea eta administrazioaren isiltasunaren ondorioak, eta horiek guztia interesdunek egokitzat jotzen dituzten alegazioak egin ditzaten”*. Halaber, garrantzitsua da Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeko xedapenak aintzat hartzea, 84. artikuluko 1 eta 2. paragrafoetan honakoa xedatzen baitu: *“Prozedurak bideratu ondoren, eta ebazpen proposamena idatzi aurretik, interesdunei edo, dagokionean, beren ordezkarietara prozeduren berri emango zaie, beti ere, 37.5. artikuluan jasotako informazioak eta datuak salbuetsiz. Interesdunek gehienez hamabost egun dituzte eta gutxienez hamar, egoki irizten dieten dokumentu eta egiaztapenak alegatzeko”*.

Beraz, uste dugu 30/1992 Legeko 62.1.e artikulua aplikatu behar litzatekeela: *“1. Erabat deusezak izango dira herri-administrazioen egintzak baldin eta(...)Legez ezarritako prozedura erabat alde batera utziz edo kide anitzeko organoek erabakiak hartzeko funtsezko arauak guztiz bazterturik eman badira”*.

3. Bestalde, 2/2010 Dekretuko IV. kapituluako xedapenak betez behar ez zirela kobratzeagatiko espediente berria zabaltzeko betetako izapideei buruzko argibide eskaerari erantzunez, zorra sortu izana etete ebazpen beraren bidez jakinarazi zitzaioela onartu da. Horrela, ez da ezer aipatzen 2/2010 Dekretuko IV. kapituluak behar ez zirela jasotako zenbatekoak kobratzeko xedatzen duen prozedurari buruz. Honako hau bakarrik adierazi zuten: *“en la misma (por la resolución de suspensión) se notifica la fecha de efectos de la suspensión, fijada en 1/01/2010 puesto que es la fecha desde la cual no ha presentado la justificación de pago de alquiler de su vivienda habitual en el periodo establecido, y así mismo se notifica la deuda generada y la forma de compensación de la misma”*.

Beraz, erakunde honen ustez, horri ere 30/1992 Legeko 62.1.e artikulua aplikatu behar litzaioke.



Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

35/2011 GOMENDIOA, abuztuaren 12koa, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Sailari egina

Etxebizitzako gastuetarako Prestazio Osagarriaren etetea baliorik gabe utz dezan eta, ondorioz, etenda egon den bitartean jaso ez duen zenbatekoa kobratzeko eskubidea onar diezaion.

Behar ez zirela jasotako zenbatekoak kobratzeak sortutako zorra baliorik gabe utz dezan eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errentagatik jasotzen duen zenbatekotik kenduz ordainarazi zaion zenbatekoa itzul diezaion.

